


Belateko Ama Birjina

XOLE ERBITI.

Erdi aroko Ama-Birginaren irudi ugari daude Nafarroako herrietan, eta irailaren zortzian ospatzen da bere festa Natibitatearen izenarekin. Ultzamarrak ere bazuten olako irudi bat, aintzinako Belateko Monasterioan kokaturik zegoena. Beharbada, izen hau hartu zuen, baselizatik, Loiketa mendi azpikoaldean dagoen baselizatik. Baseliza hau, Santiagoko erromesen ospitalaren ondoan 1156-1165 urteetan eraiki zen. Erdi aroan zehar garrantzi handia izan zuen monastegi honek, XVIgarren mende harte. Gerostik, behitze ikaragarria izan zuen 1793 urte arte; honekin, Frantziako «Convención» gerratean arrasatua izan zen. Gure aita zenak kontatzen zigun herriko ohitura hau: «nola izan zen Ama Birginaren irudia ebatsia, horrengatik, XIXgarren mendean bertze bat egin zutela, orain Alkotzen dagoena eta Ultzamarrak benetako debozioa diotena.

Urteoro maiatzaren zortzian joaten ziren bailarako herri guztiak, gurutzeakin, oinez, otoitz eginez Alkotza, mežara, eta bueltan herriko elizeko atarian merendatu ere.

Orain, maiatzako erromeria egiten da, bainan horrez gain, bertze bat ere antolatzen da Belatera, irailaren 8an, lehen aipatu dudana baselizara. Belateko errepide gainetik sartu eta eskubira hartzen da bidea, ibiltzeko eroso eta tarteka pagoen azpian joateko aukera duzula, iraileko kolore desberdinek ematen duen irudi koloret-suaz inguratutik, oriantza,



marroi, gorrizka eta berdez jantziak ostoa dituzula. Meza hunkigarria On Martin Apirozek eman duena, bertze bi apezzez lagundurik. Ultzamarrak otoitza egin dute orain bailaran bizi direnen eta joan zirenen alde.

Ondotik, etxeakoandreak gazta eta txorizoko bokadiloak, kafe eta guzti eskeini dituzte. Meritoa benetan lan handia hartu dutena hau prestatzen. Mila esker! Atsedean eta elkarriketa ondotik, buelta. Bide gurutzean «Agur Jesusen Ama» kantatuz eman diote bukaera erromesak gaurko ekitaldiari.

BERRI ONA ARTZALLUZ'TAR JOXEMARI

Igandea zertako?

Astearen lenengo eguneko ilunabarrean
(Jn.20,19-31)

ELKARTZEARI garrantzi handia ematen zaio gaur. Guztiak elkartu nai dute, elkartzeko toki egokiak eskatzen dituzte. Elkartzearen aldarrikapena ikaragarria da aspaldi ontan. Guztiz beharrezkoa dela diote elkartzea.

Familiako edozein gertaera gogoratzeke eta egiteko elkartu egin oi gera. Bat ezkontzen geranean, bildu egiten gera; erriko jaietan guztiok jaiotetxera urbiltzen gera familiaren gozotasunean festa egiteko zaigu; zer erranik ez, etxekoren bat iltzen denean babes emateko eta familikoa galdu duenaren samina arintzeko elkartu egiten gera.

Agian, gutxienez biltzen geran lekua eliza izango da; eta bilduta egon arren bata bertzearengandik oso aparte izan gindezke. Ez da seinale ederra meza santua egiteko.

Astearen bein atsedenerako izendatutako egunari ez diogu garrantzi handiegirik ematen, fedea bizitzeko garaian beintzat. Igandea bertze gauzak egiteko erabiltzen dugu Jaunaren eguna dela aaztuta.

Igandeak, oso gutxienez Jaunaren eguna, ez du garai batean izan zuen erranaia. Lo egiteko, atsedena artzeko, mendira joateko, ondartzarako, adiskide edo koadrillen bazkariak egiteko izan oi dira oraingo igandeak... Jaunaren eguna dela oartu gabe.

Ez da, ordea, jende multzo handia elizaratzen den ala ez; ez da, noski, apezak kexu agertzen diren ala ez mezataria jende gutxi joaten delako. Arazoa sakonagoa eta serioagoa da: gaurko fededunek ez dute fedean elkartzearen indarra baloratzen, beraz, ezin eman bear aintzako garrantzia kristau elkarteari. Eta kristau elkartea baloratzen ez denean... meza zer balio du?

Igandean fededunak, Jesukristogan duen maitasuna eta sinemen berritzen ditu, «zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak», erran digu ebanjelioan. Fededunak Jesukristogan duen itxaropena indarbertitzen du igandean elkartasunean Jaunaren eguna gogoratzen duen bakoitzean. Emendik aurrera gure elizetan jende gutxi ikusteak ez ginduzke arritu bear; elkartasun faltak, maitasun faltak, fede faltak, Jaunaren eguna aintzakotzat ez arteak... oiek dira benetan fededunarentzat kezkarri gerta bear litzaizkiokenak. Eta ez aaztu: «zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak».

Argi-itzalketa

LATIEGI'TAR BIXENTE. 945220050.

Izkuntzaren idazteko moduari-buruzkoa izango da gaurko nere solasaldia. Ez naiz gure urietako kale-argietaz edo mundua-zearko itxas-argietaz mintzatuko.

Alare istillu larriak sortzen dire bai itxasoan bai kaleetan argi oiek itzaltzen direnean, itxasoz bezala legorrez ere bear-tasunik aundieneko gauzak bait dire argiak.

Berdin gertatzen da izkuntzen idazkeran ere. Argi ematen duen guztia erabilli bearra da, illuntasuna sartzen duen guzia kendu bearra. Ori da idazkerari buruzko nere filosofia.

Ainzuzen, Yorke Berri'ra joan nintzanean, neurririk gabea zirudien Uri arras aundi artako kale ta enparantzak automobillez ibilli ondorean berandu itzuli giñan etxera.

-Zer arraio gertatuko litzake Uri ontan, emen, uste gabe, bat-batean eletrizidadea faltatuko ba'litz? galde egin nuen.

-Ori ez daiteke gertatu, erantzun zidan gizonezko batek. Eta mila azalpen eman zizkidan ori sinistrazteko. Zenbat argi-olek egiten zuen uriari tximist-indarra, ots, eletrizidadea emateko..., nola Jersey-Berri'koak trakestuko ba'lira simultaneity une ber-berean automatic beren eragiñez Konektik'oak lanean jarriko liran... eta ez dakit zenbat gauza geiago; gizon ura Yorke-Berri'ko Udalean tximist-indarrean ardura zuten injineroetako bat omen zen ba, gero jakin nuenez.

Baiñan, sekula santan gertatu ez zitekeena, bertatu egin zen egun batean, eta ez dakizute nola istilluak sortu ziren Yorke-Berria argi-indarrik gabe egon zen egun eta gau aietan, Iskanbillak eta buruasteak kaleetan txoferrentzako, medikuatzat kirofanoetan, ertzainentzat gauezko denda-lapurren atzetik, eta treneetan, lurpekoetan, lurr-artu eziñik egazkiñetan, edo etxeetako goragailuetan, arrapatutik gelditu ziren jendeentzar...

Bear bearrezko gauza-bait dugu argia, eta zearo ezereztu bear dugun gaitza, berriz, illuntasuna.

Ortik idazkerari-buruzko nere filosofia: idazkera argitzen duan guztia erabilli bearra da. Eta illuntasuna sartzen dun guzia, kendu bearra.

Guzti au, irakurle, atzo illunabarrean, emen ezkondu bizi den eta nere idazlantxo aukerak irakurtzen dituen andre



baztanda batek egindako galderatik dator:

-Aizu, On Bixente, ¿Zergatik kendu dute toki-izenetatik eta giza-izenetatik goiko «koma»? Len «Tomase'k esan du «idazten zen. Orain «Tomasek esan du». Len «Donosti'ko kaiera goaz «esaten genuen»; orain «Donostiko kaiera». Neri «Donostiko ikustean Don Ostiko datorkit burura, izen dotorea futbolari batentzat.

-Arrazoi duzu, andrea. «Donostiko», orrela, dena alkatutik idatzita, izen bat da. Donosti'ren izen berria. Ta, orain arte «Donosti'n izen naiz» idatzi dugun bezala, izen berri ori erabiliz, «Donostiko'n izen naiz» idatzi bearko genuke. Aizu, Andrea: Don Ostikon ere, ez litzazuke noski txarra izengo izengoiti bezala zure futbolari oietako yaoenarentzat. Euskeraz idatzita dagoen oro errez egoki eta aisa ulertzeko, izugarritzko argia ematen du goiko «koma», «tilde» edo «katotx» orrek. Bein, Tolosa'ko kale batean, izki aundiz, Orion zegoan idatzirik. «Orion» izar baten izena da. Alde-ratu nintzan itz ori zeraman iragarki artara, izar arrek Tolosa'n zer arraioko eginkizunik izen zezakean jakin naiez, ta... ¡to! Orion ura, zeruetako izar bat ez baiña Gipuzkoa'ko erri atsegin bat zen: Orio. Eta ez dakit andik

zenbat egunera, Orio'ko errian, bai, eta ez Orion izeneko izarrean, bertsolari-sario batzuk egin bearrak zirela iragartzen zuan iragarki arrek.

Beste bein Araba'ko erri batean, Okako irakurri nuen urrititik eliz-ateko iragarki batean. Urbildu nintzan, izen ori zer izen zitekean ezin asmatu. ¡Okako eze ez bait du!

Baiña bai, zerbait bazen eliz-ateko Okako ura: Erri baten izena, ¡gaizki idatzia! Oka'ko Udala'k erriko pesta-burua nola antolaturik zeuden adierazten bait zuen iragarki arrek.

Guzti ori, Arantzazu-ondorengo Euskaltzaindi mixeable onen errua da.

Naastu egin bera, len ain ederki argituz gero. Ordu-rate Euskaltzaindi bikain'aren lendakaria zen On Manuel Lekuna era lotsagarrian lendakartzatik bota zuten ezkerro, Euskaltzaindiak ez du gauza zuzenik egin On Manuel.

Agur, irakurle eta ez aztu nere filosofia: Argitzen, errezen, eta laguntzen duen guzia, erabilli egin bearra dugu euskeraz idaztean, eta illundu ta zaillagotu egiteaz gañera oztopogari ta alperrikakoa den guztia, uuuuxa!, zakarren itsapera bidaldu. Batez ere Euskaera ill-zori larran aurkitzen zaigula kontuan artzen badugu.

Atxagari Latxagak bi itz

LATXAGA.

Arrituta gelditu giñan lengo egunean ikusi genuenarekin; gure Bernardo Atxagak egiten zigun itz nagusi batzuek esaterakoan.

Gutxi gorabera erraten zigun: «Belarria tente euki; emendik gutxira euskera era bat urtuko da datorren itxaso galantarekin; Izkuntz indartsuekin. Oien ondoan ez dauka zer egiñik».

Bi bider irakurri nitun itz zitala nagusi aiek eta ikaragarritzko zurrunbilloa sortu zitzaidan barrenbarrenian. Entzuten ni-

tun itz nagusi aiek sortzen zituzten erantzunak ziran. Nere asmo garbi aiek. «Ez al degu ikusi berriz eta berriz gure ludi onetan erriak euskarari era bat bis-karra eman diotenak eta andik gutxira damututa bezala gogoz eutsi diotenak? Ara berriz esan bearra lengo egunian esaten genua eta edozeiñek Donezteben ikusi dezakena: «Doneztebeko alkate arek, azarolak ingenieroa itsas kaiena zan, baita erregebide nagoiena eta zubisortzaillea, gainera Doneztebeko lendakaritza sortu zuan; gai-

ñera erriko neska batekin ezkondu zan; gañera Lizarrak estatutoa Naparran ankaz gora bota zuan. Erria erdaldu zuan erabat. Euskararik ez zan inñun entzuten eta ala guztiz ere gaur Doneztebeko euskal giroa, sendo ta gartsu, erne ta mardul ortxen dugu berriz indar berriarekin zutik.

Donezteben gertatzen ari dana, ari da bertze toki askotan gertatzen. Ikus erriberako girabira. Euskara berpizteko gauza bat bakarrik bear dugu; egitazko maitasuna.